

Gizarte Antropologia Masterra

**LANAREN EGITURA ETA LANA IDAZTEKO
ETA AURKEZTEKO JARRAIBIDEAK**

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

MALa deialdi bakoitzean aldez aurretik finkatutako datan entregatuko da.

(2023-24ean: ekainak 7 eta irailak 20)

Ikasleak MALaren 4 ale paperean utziko ditu masterreko idazkaritzan (HEFA I, Rosa Artola). Horrez gain, emailez pdf formatean bidaliko dio tutoreari, A. Leizaolari eta Rosa Artolari kopia eginez (cc: aitzpea.leizaola@ehu.eus, hefa.masterrak@ehu.eus).

Lanak 120.000-150.000 karaktereko gutxi-gora-beherarako luzera izango du, espazioak eta oin-oharrak barne. Bibliografia eta eranskinak ez dira kontutan hartuko.

Kapitulu eta gainerako atalen tituloak egiterakoan ahal den neurrian testu prozesatzaileek dituzten aukerez baliatu . Honek aurkibidea egiten ikaragarri errazten du, eta hartara orrien zenbakitzea gaurkotzea aukera ematen. Orri saltoa erabili kapitulu berri bat hasteko.

Kapitulu kopurua norberak hautatzen duen egitura eta edukien araberakoa izango da.

Kapitulu berri bakoitza orri bakoitian hasi.

Orrialdeak era korrelatiboan zenbakituko dira (azala eta aurkibidea ez dira zenbakituko).

Letra mota eta tamaina: Calibri 12 puntu. Lerroartea: 1,5 (lerro hutsik gabe paragrafoen artean). Ez da lerro hutsik utziko paragrafo baten eta ondoren datorren izenburuaren artean.

Lerrokatze justifikatua testu osoan (oin oharrak barne).

Marjinak: Testu prozesatzaileak dituenak erabiltzea gomendatzen dugu (2,5x 2,5)

Koska erabiliko da (0,5 eta 1,25 cm artean) aipamen luzeetan, bai aipu bibliografikoak zein landa laneko oharrak. Nahi izanez gero landa laneko oharrak letra etzanez jar daitezke.

Letra etzana erabiliko da liburuaren eta beste agiri batzuen izenburuak nabarmentzeko, eta beste hizkuntza batzuetako hitzak idazteko.

Azpimarra edo **letra lodia** izenburuetan erabiliko da (ahal den neurrian testu prozesatzaileen estiloak erabili).

Salbuespen moduan letra lodia landa laneko hitz solte edo esamoldeak azpimarratzeko asmoz.

Izenburuak zenbaitu egingo dira hierarkikoki, haien edukia hobeto ulertzeko, ezkerretara lerrokatuak.

Egitura

- ❖ Azal-orria: Masterraren izena, espezialitatea, Master Amaierako Lanaren izenburua, egilea (izena eta bi abizenak), lanaren zuzendaria eta ikasturtea

(atzealdea hutsik). Argazkia, aukeran. Orrialdeko behe erdialdean UPV/EHUko logoa.

- ❖ 200-300 hitzeko laburpena eta 4 hitz gako lana idatziko den hizkuntzan (euskara, gaztelania edo ingelesa). Hasi bakoitian; behar izanez gero, atzealdea hutsik.
- ❖ Eskertzak: esker onak adierrazi nahi izanez gero, bildu testu labur batetan; aipu iradokitzaile bat atariko moduan jarri nahiz gero, hemen. Hasi bakoitian.
- ❖ Aurkibidea, zenbakitua (ez sartu atal gisa ez azal-orria ezta aurkibidea ere) (hasi bakoitian; beharizanez gero, atzealdea hutsik). Hasi bakoitian.

Honako 3 puntuak eskema klasikoaren arabera aurkezten ditugu hemen, baina ez da derrigorrezkoa orden hau bera jarraitzea Malean (alegia ez dute zertan 3 kapitulu banako izan beharrik). Edukiei dagokionez, ordea (marko teorikoa, metodología eta analisia) MALean EGON BEHAR dute, bai ala bai. Kapituluaren kopurua edukien eta egituratze hautuen arabera izango da hortaz.

- ❖ Sarrera: motibazioa, helburuak, lanaren egitura. Helburua/Xedea. Lortu nahi diren helburuen edo planteatutako arazoaren definizioa. Gaiaren interesa eta egokitasuna. MALren aurkezpen orokorra, atal segidaren ikuspegi osoa emanez (zenbakitzea sarreran hasten da -1. orria- Hasi bakoitian).
- ❖ Marko teorikoa: Gaiaren egungo egoera eta oinarri teorikoak.
- ❖ Metodologia. Ikerketa galderak edo hasierako hipotesiak, erabilitako metodologia. Diseinua, informazioa biltzeko prozedurak, azterketako parte-hartzaileak, etab.
- ❖ Eraitzen analisia eta interpretazioa, Behar adina kapitulu.
- ❖ Ondorioak: lanaren eduki garrantzitsuenen aurkezpena, mugak, eta etorkizuneko lanetarako inplikazio posibleak.

- ❖ Bibliografia: lana egiteko erabili diren bibliografia erreferentziak bildu behar dira ordena alfabetikoan, jarraian adierazten diren arauak reabilita.
- ❖ Eranskinak (baldin badaude) lan bukaeran egon behar dute.

Bibliografia

Erreferentzia bibliografikoak ordena alfabetikoan kokatu behar dira. Egile baten erreferentziak argitalpen urtearen arabera ordenatzen dira, zaharretik berrienera. Egile bakarra duen erreferentzia egile gehiagorekin idatzitakoaren aurretik jartzen da. Egile batek urte berean argitaratutako erreferentzia bat baino gehiago dituenean, bereizi egiten dira letra minuskulak ipiniz argitalpen urtearen ondoan eta parentesia itxi aurretik.

Autore anitzak badira, bukaerako bibliografian autore guztiak aipatzen dira. Testuaren barnean, egileak bi edo hiru direnean, autore denak aipatzen dira beti. Egileak hiru baino gehiago direnean, lehenengo egilea aipatu eta "*et al.*" esapidea eranstean da. Adibidea: (Del valle *et al.*, 2002:54)

Erreferentzi bibliografikoa testuaren gorputzean egingo da. Ez da oinoharrik erabiliko honetarako. Aipua literala bada beti jarri behar dugu aipuaren orrialdea.

Testuan erreferentzi bibliografikoak aipatzeko moduen adibideak:

(Malinowski, 1978)

(Del Valle et al. 2002)

(Malinowski, 1978: *passim*)(testuan zehar garatutako ideia)

(Del Valle *et al.*, 2002: 54)

(Del Valle, *ibidem*)

Liburuak:

Mead, Margaret (1975) *Adolescencia, sexo y cultura en Samoa*. Barcelona: Laia.

Fernández, Irantzu (2009) *Maitasuna nerabeen arteko genero sozializazio prozesuetan. Maitasunaren diskurtso eta praktikak. Jarraipen, tentsio, gatazka eta hausturen aniztasuna*. Trabajo de investigación. Master en Estudios Feministas y de Género (Curso 2008-2009). Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea.

Liburuetako kapituluak

Comas d'Argemir, Dolors (2000) "Mujeres, familia y estado del bienestar", in T. Del Valle (ed.) *Perspectivas feministas desde la antropología social*. Barcelona: Ariel, 187-204 orr.

Fox, Bonnie (1998) "Motherhood, changing relationships and the reproduction of gender inequality" in Sharon Abbey y Andrea O'reilly (eds.) *Redefining motherhood. Changing identities and patterns*. Second Story Press: Toronto.

Aldizkariak

Díez Mintegui, Carmen (1996) "Deporte y construcción de las relaciones de género" en *Gazeta de Antropología*, 12:93-100.

Bullen, Margaret eta Kerexeta, Xabier (2013) "Genero-indarkeriaren erakundetzea Bidasoaldeko alardeetan", in *Ankulegi. Gizarte Antropologia aldizkaria*, 17: 11-28.

Web orrietatik lortutako informazioa:

Dokumentua identifikatu ondoren kontsulta data eta URLa adieraziko da:
[<http://www.ehu.es/dabil/col.htm>] (11/05/2013an kontsultatua).

Irailaren 28ko 822/2021 Errege Dekretuak Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH) Gradu, Unibertsitate Master eta Doktoregoko ikasketa-planetan sartzeko betebeharra ezartzen du.

Horren ondorioz, hemendik aurrera, ikasleek TFMa grabatzen dutenean, lanarekin uztartzen diren GJHak ere adierazi beharko dituzte. Horretarako aldaketak egin dira GAUR pantailetan.

El Real Decreto 822/2021, de 28 de septiembre, establece la obligatoriedad de incorporar en los planes de estudios de Grado, Máster Universitario y Doctorado los Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS).

Como consecuencia, a partir de ahora cuando el alumnado grabe el TFM para su defensa, deberá incluir también los ODS con los que se alinea dicho trabajo. Para poder recogerlos, se han realizado cambios en las pantallas de GAUR.